


MAIDERREK KOMETA EDERRA EGIN DU



Neska ilehori honek Maider du izena; 13 urte ditu. Maider kartoiarekin etxera joan da. Arratsalde osoa pasatu du bere logelan lanean. Koloretako paperak, artaziak eta kola bilatu ditu. Moztu eta itsatsi, moztu eta itsatsi... Gaueko getan kometa bukatu du. “Oso lan ona egin duzu”- esan diote gurasoek afarian. Maider ere harro dago bere lanarekin.

Hurrengo egunean ez dago eskolarik, larunbata da eta. Baina Maider goiz jaiki da. Azkar gosalduta, gurasoak agurtu ditu eta parkera joan da. Parkea jendez beteta dago. Maider postu batean gelditu da eta marrubi-izozkia erosi du. Izozia jaten bukatu duenean, haizea jotzen hasi da. Maider poztu egin da. “Haize honekin kometa erraz igoko da gora”-pentsatu du.

Bai, kometa gero eta gorago igo da; zuhaitz altuen gainetik hegan egin du. Maider poz-pozik dago, irribarretsu. Koloretako zintak haizearekin mugitzen dira. Haurrak eta helduak hurbildu dira kometa hegan ikustera.

- Ze polita den!- esan du haur batek.
- Ze kolore biziak dituen!- esan du beste batek.
- Utziko didazu? -galdetu dio Maiderri hirugarren batek.
- Jakina! -erantzun dio Maiderrek. Eta txandaka haur guztiek jolastu dute kometarekin baita helduren batek ere.

ERANTZUN GALDEREEI:

1. Zer erabili du Maiderrek kometa egiteko?

2. Nola geratu da Maider bere lanarekin?

3. Gosalduta ondoren, nora joan da Maider?

4. Zer erosi du Maiderrek parkeko postuan?

5. Zergatik igo da kometa hain erraz gora?

6. Maiderrek nori utzi dio kometa?
